

MUNAIN

– ARABA / ÁLAVA –

Munain herria pagadiz eta hariztiz estalirik dauden Iturrietako Mendiak eta Entzia mendilerroak osatzen duten erlaitz nabarmenduaren oinaldean dago. Mendilerro horretan sortzen da, mila metrotik gorako altueran, Zadorra ibaia –Arabako emaritsuena den arren, Munaindik igarotzean errekasto bat baino ez dena– osatzen duten iturrietako garrantzitsuena.

Munain Donemiliagako udalerría eta Aguraingo koadrila osatzen duten herrietakoa da. Gasteiztik 25 km ingurura dago, eta Aguraindik –Ekialdeko Lautadaren erdigunetik– 3 km-ra. Arabako hiriburutik joateko, Elorriagako atetik irtengo gara, N-104 errepidearekin lotu eta N-1etik jarraitzeko, Agurain-Opakua irteeraraino. Handik, A-3138 errepidetik segituko dugu, eta azken kilometroa A-4113tik egingo dugu.

1025 inguruan, *Munniabin* izenez aipatzen da, *Hegirazeko* barrutiaren baitan, Donemiliaga Kukulako monasterioari urtean hesi-burdina bana ordaintzen zioten herrixken artean. 1156tik aurrera Kalagorriko apezpikutzari euren detxemen laurdena eman behar ziotenen artean ageri da bertako parroquia, haren menpeko lurraldean zegoelarik, eta 1179ko eta 1200eko dokumentuetan ere berresten da eginbehar hori. Antso IV.a erregeak 1289ko urtarrilaren 3ko datako eskutitza medio, Munain eta Okariz herriak erantsi zizkion Aguraingo hiribilduari –horrek 1256tik zuen erregeak emandako forua–. Baina, kasu horretan, eransketa ez zen erregearen ekimenez egin, herriotako bizilagunek eskatuta baizik, Arabako zaldun eta ezkutarien alde-tik nozitzen zuten indarkeriatik babestearren. Gil lizentziatuak zioenez, 1556an, hiru onuradunek –mantenu osoko bik eta mantenu erdiko batek– zerbitzatzen zuten Munaingo eliza.

Se sitúa Munain a los pies de la marcada cornisa que forman los Montes de Iturrieta y la Sierra de Entzia, poblados de hayas y robles. A más de mil metros, en la mencionada Sierra de Entzia, tiene su origen la fuente más importante de las que forman el río más caudaloso y nítidamente alavés, el Zadorra que, a su paso por Munain, es tan sólo un pequeño arroyo.

Perteneciente al municipio de San Millán / Donemiliaga y a la cuadrilla de Salvatierra / Agurain, Munain dista unos 25 km de Vitoria-Gasteiz y 3 de Salvatierra / Agurain, centro de la Llanada Oriental. Para acceder a la localidad desde la capital alavesa se abandona ésta por el Portal de Elorriaga para enlazar con la carretera N-104 y continuar por la N-1 hasta la salida Agurain-Salvatierra Opakua. Se toma aquí la A-3138, recorriendo el último km por la A-4113.

Con la voz de *Munniabin* se le menciona, hacia el año 1025 y dentro del Alfoz de Hegiraz, como una de las aldeas que contribuye anualmente con una reja al conocido tributo de San Millán de la Cogolla. En 1156 consta su parroquia como una de las iglesias que, desde dicho año, y con ratificaciones en 1179 y 1200, entregaba al obispado calagurritano, al que pertenecía, la cuarta parte de sus frutos decimales. Por concesión del rey Sancho IV, en carta fechada el 3 de enero de 1289, la villa de Salvatierra, que lo era de realengo desde 1256, incrementó en dos el número de sus aldeas, al avecindarse en ella Munain y Okariz. Pero en este caso la iniciativa no partió del monarca, ya que fueron los vecinos de las mencionadas aldeas los que solicitaron avecindarse, ante la violencia que sufrían de los caballeros y escuderos de Álava. Según el licenciado Gil, en 1556 la iglesia de Munain estaba servida por tres beneficiados: dos enteros y uno medio.

Jasokundeko Andre Maria eliza *Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

PARROKIA-ELIZAREN eraikuntza XVI. mendeko lehenengo urteetatik aurrera aipatzen da dokumentuetan. Dorrearen oina hartzen duen eliz atariak babesturik, ordea, XIII. mendeko portadak dirau. Arku zorrotza inposta lisoetan eta ate-zango baketoidunetan bermaturiko arki-bolta baketoidunek inguratzen dute. Arkugainera xakeztatua da, eta erradioen modura ipinitako hosto-ilara batek nabarmentzen eta oxkarratzen dute arkuaren kanpoaldea.

Portadaren alboetako bermeetan, Erdi Aroko motiboekin –besante eta zerra-hortzekin– apainduriko harri-hondarrak daude. Micaela Portillak dioenez, portadaren oinarritik kendutako zatiak izan daitezke.

Testua eta argazkiak: MPG

LA IGLESIA PARROQUIAL es un edificio cuya erección se documenta a partir de los primeros años del siglo XVI. Sin embargo, resguardada por un pórtico que ocupa el pie de la torre, se conserva la portada del siglo XIII. Se desarrolla en arco apuntado, acompañado de arquivoltas baquetonadas que se apean en impostas lisas y jambas también baquetonadas. El trasdós del arco es ajedrezado, y una hilera de hojas, colocadas en sentido radial, perfilan y festonean el exterior del arco.

En los asientos que flanquean la portada quedan restos de piedras decoradas con motivos medievales: besantes y dientes de sierra. Micaela Portilla indica que se trata, acaso, de fragmentos removidos de la base de esta portada.

Texto y fotos: MPG

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 45; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, pp. 581-582, fig. 510; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, p. 69.

Portada / Portada



Portadaren basamentua / Basamento de la portada

